

8. FUNTZEZKO JARDUERAK:

Gure funtzezko jarduera ekoizpena da, ondorioz manufaktura-enpresa bat gara. Honek esan nahi du gu gure eskuila diseinatu, ekoiztu eta entregatuko dugula. Noski lehen esan dugun bezala gure eskuila eman ahal dituen arazoak konpontzeko, baita eskaerak egin ahal izateko eta baita lehehngo kontaktua bezeroekin edukitzeko batzutan webgunearen bitartez egingo dugu. Webgunearen mantenimenduaz baita arduratuko gara eta honetak aurrerapenak eta erraztasunak jartzen joanga gara. Egunero begiratuko dugu bai web-gunea bai honetan agertzen den gmaila beharreko erantzunak eta atentzio egokia emateko gure bezeroei.

Ekoizpenarekin hasteko beharreko materialak lehenago aipatutako hornitzaileei eskaera bat egingo diegu, noski merkeago izateko material maiztasun handia eskatuko dugu eskaera bakoitzean. Hau eta gero eskuila ekoizten hasi beharko gara. Honetarako silikonaz edo scannerra (odontologoek) erabilia ahoaren anatomiaren inpresioa sortuko dugu. Hurrengo pausua inpresio hauek eredu bihurtzea izango da; scannerra erabili bada ez da beharrezkoa pausu hau egitea guztiz automatizatuta dagoelako, ondorioz zuzenean edukiko dugu ahoaren eredua ordenagailuan eta bertatik abiatuta neurriak eta egitura egin ahalko dugu. Bestalde silikonazkoa bada igeltsuz hustu beharko dugu eta hemendik aterako den eredua lantegian egongo diren skanerraren bidez ordenagailura pasatuko dugu. Behin ordenagailuan egonda erdeduak anatomia, neurriak, formak... kontuan edukita eskuilaren egituraren molde bat sortuko dugu eta lantegian dagoen 3D makina erabiliz molde hau ordenagailutik aterako dugu egitura fisiko bat bihurtuz. Molde honetan bluetooth, funtzionatzeko erabiltzen diren mikrotxipak, abiadura eta presioa ematen dutenak... jartzen dira. Gero silikona likidoarekin moldeak betetzen dugu. Hau lehertzen danean moldetik ateratzen dugu eskuilaren egitura finala ateraz.

Azkenik eskuila osatzeko zuntzak ekoiztu behar dira. Honetarako ateratako ereduak ikusiko dugu ze nolako neurriak izan behar dituzte eta hornitzaileari eskatutako xlafak mostuz eta luzatuz plastiko gogor baina helburu bati itsatsiko zaizkio beharreko zuntzak sortzeko. Hauek sartu eta kendu ahal dira eskuilatik nahi duzunean makil moduko bat izango dutelako estrukturaren zulo batetik sartu eta kanporatu egiten dena. Baita ordezkio zuntzak era berdinean fabrikatuko ditugu baina eskuilan ez ditugu sartu, hori bezeroak egin ahal izango du etxean.

Baita ere esterilizazio kutxaren ekoizpenaz arduratzen gara. Beste puntu batean esan dugun bezala beroa eta ura erabiliko du prozesua hau aurrera eramanez ahal izateko. Hauek beti neurri berdina izango dute ordun egingo dira guztiak era berdinean. Lantegian bertan altzairu herdoilgaitza xaflekin kutxa egingo da. Haibat xafle geruzaz osatuta egongo da eta hauen hartean bluetooth, mikrotxipak, berorako erresistetziak... egongo dira kokatuta. Kanpoan dagoen azkeneneko kapa gomazkoa izango da, plastiko moduko bat bezalakoa, horrela korrontea eta beroa ez dira

kanpora transmitituko. Albo batean ur depositu txiki bat edukiko du, hau esterilizatzen dugun bakoitzean urez bete beharko dugu.

Azkenik produktu guztiak funtzionamendu egokia dutela ziurtatu ondoren bezeroari bidaltzen diogu bera eskatutako puntura, etxea, kinika, elkarte...correos-ek daukan sarearen bitartez.